

Auzolana, ikerketa akademiakoaren giltzarri: ARAKA Ikerketa Taldearen esperientzia

Ezkurdia Arteaga, Gurutze; Bilbao Bilbao, Begoña; Perez Urraza, Karmele

Sarrera

Taldearen abiapuntua eta izaera Bilboko Magisteritza Eskolan kokatzen da, gaur Bilboko Hezkuntza Fakultatea den horretan irakasle eta ikerlari aritu baitziren. Doktorego ikastaroa amaitu bezain laster, tesiak planteatzen hasi ziren, ikergai bakarra hartuz tesiak auzolanean burutzea erabaki zuten. Horixe izan da esperientzia honetan ekarpenik interesgarriena, alegia, marko teorikoa nahiz aldagaiak finkatzeko erabakia eta data basea sortzea, auzolanean gauzatzea, eta bide guztia –proiektua sortu, burutu eta sozializatu–, euskaraz eraikitzea. Harrezkero, batera jarraitu dute ikerketan eta idazten, auzolanean. Testuliburuaren gaineko ikerketarekin abiatu baziren ere, gaur egun, horrez gainera, emakume/maistrak aztertzen eta ezagutarazten ere dihardute.

Lan honen helburua da, auzolanean burututako ikerketaren berri ematea, horretarako bidean burutu diren lanak aipatuz eta emaitza garrantzitsuenak ekarriz.

1. Testuliburuak curriculumaren isla, ikerlanaren hastapenak

Testuliburuaren gaineko ikerketan abiatzeko arrazoia beraien erabilera izan zen, ezen ikasgelan baliabide didaktikoetatik tradizionalena eta hedatuena baita, eta beraz, euskal ikasleek ere horrekin ikasten ohituak baitziren. Egun Espainian irakasleen %70 inguruk aitortzen du paperezko testuliburuaren oinarritzko tresna gisa erabiltzen dutela beren klaseetarako eta %45ek liburuak euskarri digitalean erabiltzen dituztela. Berrogeita hiru milioi eta erdi testuliburu baino gehiago erosi ziren iaz, ikasle bakoitzeko 5,40 liburu. Datu horrek frogatzen du, kritikak egin arren, paperezko liburuaren erabilera ia unibertsal izaten jarraitzen duela (ANELE 2019). Eskolan ohikoa den baliabide honek ikerketa ugari sortu ditu, ikuspegi didaktiko nahiz teoriko nahiz ideologikotik begiratuta. Choppinek (2000) azaltzen digunez testuliburuaren

gaineko ikerketa XX. mendeko azken urteetan hedatu zen, 1960. hamarkadan. Handik aurrera egiten dela edukiaren azterketa, bai ageriko edukiaren gainean, baita ezkutuan geratzen den edukiaren inguruko ikerketan ere.

Ikerlanean abiatzean, Euskal Herrian ez zegoen pareko lanik burututa. Hori dela-eta, lehen oztopoetako bat tesi zuzendariak ikerlarien planteamendua ulertzea izan zen. Ondorioz, erabaki beharrekoa izan zen bakoitzak zein ikuspuntutatik landuko zuen gaia, bakoitzak bere tesia garatu zedin. Era bitako erabakiak hartu ziren orduan: batetik XX. mende osoko testuliburuak aztertuko zirela, eta bestetik, bakoitzaren ikerketan arloa desberdinduko zela. Horretarako, euskaraz argitaraturiko liburu guztiak banan-banan arakatu ziren, beti ere, Lehen Hezkuntzan jorratzen den ingurumenaren ezagutzako arlokoak. Arloa banaturik, Karmelek lanbideari begiratu zion, espezifikoki lanbidearen deskribatzaileari ematen zaion trataerari, era horretara argitzeko asmoz nola islatzen den Euskal Herriko testuliburuetan lana, ekonomia eta zientzia, eta teknikaren garapena. Gurutzek, historia eta geografia jorratu zituen: garatzen diren eduki geografiko eta historikoak Euskal Herriaren ingurune fisikoa eta historikoarekin lotua zegoen ala ez. Begoñak testuliburuaren arabera, zer den euskara, zer den euskal hizkuntza eta zeintzuk diren euskararen ezaugarri kulturalak mugatu zuen.

1.1. Ikerketaren oinarri zientifiko-akademikoa

Tesi lanetan testuliburuaren hustuketarako prozedura kuantitatibo eta kualitatiboa erabili da. Horretara, Euskal Herriko eskoletako testuliburuaren edukia eta egoera deskribatu gura izan da, deskripzioaren esanahiari azalpen epistemologikoa ere emanaz. Jokabide horrekin aurkitu dena da, XX. mendearen hasieratik hona testuliburuak asko aldatu direla, hala itxuran nola edukian. Batetik, orain gaika antolatzen dira lehen liburu bakarrean zetozen edukiak; bestetik, liburuaren tamaina, egikera eta kolorearen erabilera ere aldatu egin dira. Horrela, Choppinekin (2000,108) bat eginez, testuliburuak argitaratzen den momentukoa dela onartzen da, gizarte batek une jakin batean gazteriak bere balioak betikotzeko eskuratu behar dituela uste duen ezagutzen eta tekniken euskarri eta gordailuzain gisa aurkezten da eta. Programa ofizialak, halakorik dagoenean, eskuliburuak hertsiki egituratzeko egitura dira.

Horrez gainera, badira ikerlanak –Romerok (2011) errepasso sakona egiten du– adierazten dutenak ikuspuntu desberdinak daudela testuliburuak aztertzeko. Beti ere, garrantzizkoak dira testuliburuak bideratzen dituzten ikuspegi ideologikoak, ikaslearen identitatearen eraikuntzan eragin zuzena izango dutenak. Dena den, ezagunak dira behin eta berriro kuestionatzen diren interes komertzialak, testuliburuaren salmentak diru asko mugitzen du-eta; baita testuliburuak ezartzen duen kontrola, eskolan egiten denarena –edo egiten ez denarena–, zein irakasleak galzten duen garapen profesionalerako gaitasuna (Romero 2011, 206). Edozelan ere, testuliburuak garrantziko tresna dela ez da kuestionatzen, funtsezkoa da eskolaren ikuspuntu edukatiborako, nahiz eta batzuetan, metodologia berrien ezarpenean eragin negatiboa izan. Hau gaiak garrantzizkoa delako, badira mundu mailako ikerketa guneak, zeinetan testuliburuak eta curriculumaren gaineko lanak jorratzen diren. Horra hor, Alemaniako George Eckert Institut-a, identitatearen eta

historiaren arloaz ikerketa mamitsuak burutu dituen edo Norvegiako Johnsen-ena, edo Estoniako Tartu-ko unibertsitatearen ekarpenak; Frantziako INRP-ren inguruan EMMANUEL egitasmoa –Choppin-en zuzendari zela sortua– edo MANES iker gunea, Portugal, Espainia eta Hego Ameriketako lanak biltzen dituen. Ikerlarien artea ezagunak dira, bestalde, Suedian Selander, Frantziatik Choppin eta Chervel, Espainian Escolano eta Tiana Ferrer, eta Ipar Ameriketako Westbury, Shaver, Fox eta Hess, Anyon, edo Apple, besteak beste, euren lanetan curriculumean –testuliburuetan islatzen den edukiaren bidez–, parametro sozialak, ideologikoak nahiz identitatearen gainekoak, zein leku duten aztertzen baitute.

Testuliburuaren garrantziak curriculumaren garapenarekin lotura zuzena du. Izan ere, eskoletan lantzen den curriculumak identitatearen eraikuntzan daukan eragina aztertzea ezinbestekoa da, zeren irakasten dena zein ez dena zalantzan jartzeari funtsezkoa dela kontuan hartu behar baita. Macedok (1990,184) dioena da hezkuntzaren eta eskolaren funtzioa praktika politikoaren testuinguruan kokatzen dela.

Euskal Herrian burutzen den testuliburuaren gaineko ikerketan honetan, identitatearen eraikuntzan funtsezkoa da ingurunearen ezaugarriek duten garrantzia, horietatik abiatzen baita ikaslearen ikaste prozesua. Ezinbestekotzat jotzen da umearen identitatearen eraikuntzan curriculumak islatzen duten testuliburuaren edukien nolokotasuna aztertzea, jakinik, ikasleek ikasten duten edukia testuingururatu dagoela. Arrazoi hori dela-eta, testuingurua zein den eta nolakoa den jakitea izan da ikerketako honen helburuetako bat.

1.2. Ikerketa burutzeko hainbat ohar metodologiko

Arestian aipatua aintzat harturik, euskaraz argitaratutako testuliburuaren gaineko hautaketa egiteko aro soziologiko desberdinak mugatu ziren. Lehenengo aroa, 1876tik 1974ra, Foruen galerari eta Eusko Pizkundearen sasoiari dagokiona da. Bestalde, Eusko Ikaskuntzak hizkuntza eta irakaskuntzaren inguruko interesa eta erabakiak bultzatzen ditu, lehenengo Ikastolak eta Auzo eskolak sortzera iritsiz.

Bigarren aroan, 1975etik 1991ra, Ikastolak zabaldu eta sendotzen dira, material berriak eta testuliburuaren sorrera bultzatuz. Argitaletxe komertzialek burutuko dute testuliburuaren ekoizpena: Saioka proiektua sasoi honetakoa da; Elkar, Erein eta Gordailu argitaletxeek euskaraz sortuko dituzte liburu berriak. Epe honetan bertoko argitaletxeak zein kanpokoak hasten dira liburu euskaratuak saltzen.

Hirugarren aroak, XX. mendearen azken hamarkadari dagokio –1992-2000–, euskal irakaskuntzaren zabalkundea eta argitaletxeen birkokapena egiten denekoa. Sasoi oparoa da, oro har. Euskaraz argitaratzen diren testuliburuak gora egiten baidute ere, Estatuko argitaletxeen eskutik datoz gehienak.

Laugarren aroa XXI. mendeari dagokio, 2000. etik 2016. erako bitartean. Epe honetan euskarazko irakaskuntzak zabalkunde handia izan du. Bertoko zein estatuko argitaletxeek testuliburu berriak plazaratzen dituzte.

Metodologia zehazterakoan testuliburuaren orria da gunea, bertan agertzen diren ikonoen azterketarako. Ikonoaren kokapena mugatu eta bere tamaina neur-tuz gainera, ikono bakoitzaren edukia zehaztu da, horretarako 186 aldagai definituta. Data-basea sortu da, ikonoen ikono lortutako datuak sistematizatuz, emaitzarako

egokiak izan diren aldagaien arteko loturak irakurtzeko balioa ere izan duena. Ikono bakoitzaren edukiarekin batera beste sei aldagai mugatu dira, ikonoaren erreferentzia adierazten dutenak, hots, ikonoa zein testuingurutan zehazten den balio izan dutenak. Aztertutako laginak, tesietatik harago joan dena, 34.283 ikono ditu, 1876 eta 2015 artean argitaratutako 105 testulibururi dagozkienak.

Bestalde, testuliburgintzak izan duen garapena oinarritzat hartuta, lau aro horietaz baliatu gara datuen azterketarako. Foruen abolizioak eragindako Pizkundearen sasoia da denboran luzeena, baina aldaketa handi-handirik ez dago. Argitalpen horietan bertan bizi den egoerak eta gertaerak eragin handia dute, testuliburu gehienak euskaraz Hego Euskal Herrian ekoizten direlako. Hirurogeita hamarreko hamarkada da aldaketa politikoa ekarriko duena, sistema publikoan euskarazko irakaskuntza abian jarritz, eta berarekin, euskaraz ekoiztuko den testuliburu gorakada eraginez. 1990 da hurrengo aldaketa nagusia mugatuko duena, Hegoaldeko lege berrien indarrez. Egoera hauek dira epe bakoitzean edukiek modu desberdinean lekutzearen kausa. Iparraldeari dagokionez, XX. mendearen amaierak lan berriak argitaratzea dakar. Ikas-bi taldeak moldatzen ditu batzuk eta Ikas talde pedagogikoaren eskutik datoz besteak. Harrezkero Ikas/Ikas-bi pedagogia zerbitzuak eskolako ikasgaietako testuliburuak zein literatura eta hizkuntzarakoak argitaratzen ditu. Hegoaldean maila estataleko argitalpenak nagusitu dira, euskaraz eta gaztelaniaz plazaratzen direnak.

1.3. Tesietatik eratorriko ekarpenak

Arestian aipatutako lagina eta arloa oinarritzat harturik, Gurutze Ezkurdia, *Identitatea eta ingurunea curriculumean* (2004), tesi lanean ondorioztatu duena da, euskarazko testuliburuetako ikono historikoen kopuruak gorabehera handiak izan dituela XX. mendean zehar; gaur egun gaztelaniako oso antzerakoak direla esan genezakeela ia kalkoa. Euskarazko testuliburuetako ikonoen testuinguruei so eginez, argi gelditu da testuinguru soziokulturala gainbehera etorri dela, lehen aroko (1876-1975) %75etik laugarren aroko (2000-2016) %4,86ra jaitsi baita. Soziokulturalaren ordez, testuinguru juridikoa %17,61arekin eta estatala %36arekin hazi dira. Euskaraz ikasteak ez du bermatzen edukia testuinguru soziokulturalan lantzen denik, lehen aroko (1876-1975) testuliburuetan zen bezala, oraingoetan gaztelaniako itzulpen hutsa egiten baita askotan. Gaur egun Euskal Herriko ikasleek testuliburu bidez ikasten duten errealitatearen ereduak ez du zerikusi handirik haurren errealitate hurbileko ingurune sozio-historiko eta kulturalarekin. Ikasten duten lurralde erreferentzia politikoa da, ez dator bat Euskal Herrikoarekin. Ikasten duten historiaren eredu, bestalde, lineala da, mendebaldeko eredu bateratuaren arabera. XXI. mendekoetan, lurralde autonomikoak eta Estatuko historiak hartzen du indarra, erregio edo autonomietako lurraldeetako ñabardura batzuekin. Eraitza guzti hauek eragin zuzena dute Euskal Herriko haur eta gazteek erakitzen duten identitate nazionalan, eta baita, soziokulturalan ere. Ezkurdia egindako tesiaren oinarrian, identitatearen eraikuntzari buruzko teorizazio sakona egiten da, batez ere, Castells-en (2000) lanetan oinarritutakoa. Honen arabera hiru identitate desberdintzen dira, identitate hegemonikoa edo ofiziala, Estatuari dagokiona; erresistentziako identitatea, kasu honetan, Euskal Herriari dagokiona,

eta proiektu identitatea, eraikitzeaz dagoen identitatea, Europakoa, kasuan kasukoa. Ezkurdia lanetan ondorioztatu daitekeena da, euskal herritarren identitatea, Estatuaren historia eta lurraldearekin lotzen direla, gehien baten, eta estatu-nazioaren identitate nazionaleko hiritarrak hezitzen direla. Oso modu behin-behinekoan lantzen dira Euskal Herriari buruzko historiaren pasarteak, eta ez da aurkitu ildorik euskal gizataldeak historian zehar izan duen ibilbidea azaltzen duenik. Edukia modu sakabanatuan eta nahasian azaltzen da, eta horrek ez dio laguntzen ikasleak eraikitzen duen identitateari.

Karmele Perez Urrazak bestalde, *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan* (2003) tesian, Euskal Herrian indarrean dauden hezkuntza-sistema estatalen oinarriko zertzelada historikoak agertuz batera, testuliburuaren legeria nola gauzatu den sakontzen du, legeria horrek testuliburuaren nolakotasuna eta eskola-argitaletxeen jokabideak baldintzatzen dituelakoan bai-kaude. Horrekin batera, euskal irakaskuntzari hurbilketa historikoa eginez, euskal testuliburuaren iraganari eta oraingoari heltzen die, euskal nazionalismoaren egitasmo sozio-historikoetan aurkitzen duelako sorkuntza horren arrazoa, hots, euskal testugintzaren izaera eta bilakaera. Horrez gainera, testuliburuaren izaera ideologikoari heltzen dio: batetik, tresna ideologiko gisa ikasle, irakasle eta familiarri begira duen eragina aztertuz; bestetik, testuliburuaren ideologiari diskurtsoaren eraikuntzan ikonografiak eta testuak duten garrantzia azpimarratuz. Zientzia teknologia eta lanbideak testuliburuetan nola gauzatzen diren begiratu ondorioztatzen du, euskaraz ekoiztutako testuliburuaren egoera dikotomikoa dela lan munduarekin: XX. mendearen hasierako testuliburuak Euskal Herriatik Euskal Herriko burutzen dira. Baserri giroan daude kokatuak lanbideak, eta nekazal kulturari birkokatzen dira aurrerapen teknikoak eta teknologikoak. Eguneroko beharrezkoak lotzen zaizkie lanbideak, prozedura teknikoak, eskulanak, ohiturak, olerkiak, kantak, zein aurrerapen zientifikoak zein industrialak, baserri giro hori hiritarragoa agertu arren. Orain (1992-2000), berriz, lan-mundua erro politikoa duen komunitateari lotzen zaio. Lurralde banaketa-politikoak esparru geografikoari, sozial zein kulturalari aplikatzen zaio, Euskal Herriaren entitate soziokulturala desagertuz doan bitartean. Testuliburuak hiru dimentsioetako espazio fisiko eta sinbolikoa da ikasleentzat. Edozein testuliburuaren ikasleak beti aurkitzen ditu honako hiru ardatzak: kultura, hizkuntza eta lurraldetasuna, eta hiru horien arteko orekak eta desorekak liburuari euskal izaera ematen diote. Horrez gain, testuliburuaren izaeraren azterketak agerian uzten ditu liburuaren sorkuntza eta ekoizpenean gauzatzen diren mikropolitika eta makropolitikaren prozedurak.

Begoña Bilbao *Bilbaok Kultura erreferenteak oinarriko hezkuntzako curriculumean: Euskal Herriko eskoletan* (2002) tesian, Euskal Herri osoko testuliburuaren lagina harturik, Euskal Herrian erabiltzen diren curriculum ofizialen konparaketa egiten du maila sinkronikoan nahiz diakronikoan, euskara eta euskal kulturarekiko eskoletan ingurunea ezagutzeko arloaren araketa eginez. Ipar eta Hego Euskal Herriaren, XX. mendean ikaslearen inguruneari buruz irakatsi dena jorratzen du, hots, geografia, historia, ingurunearen ezaguera, gizarte arloa, natura arloa, hezkuntza zibikoa..., historian zehar izan dituen izendapenen arabera. Fin-katutako arloaren barruan, kulturak eta hizkuntzak –euskarak eta euskal kulturak– ikaslearen identitatearen eraikuntza duten eraginaz, eta hezkuntzak eraikuntza

horretan betetzen duen funtzioaz arduratzen da bereziki, curriculumaren alderdi horietan azalduz. Euskal kultura nola ezaugarritzen den deskribatu da, testuliburuetan darabiltzaten oinarriko kontzeptuak mugatuz. Horrela, idatziko mezua eta ikonografikoa irakurrita, euskal kultura ezaugarritzeko erabiltzen diren parametroak mugatu eta hiru multzotan sailkatu dira –paisaiak, gainontzeko ezaugarriak eta hizkuntza– eta ikusi da ezaugarri horiek joera desberdina dutela; goranzko joera dutenak, paisaiak, kirolak, jaiak eta gastronomia diren bitartean, behera jo dute euskarak, mitologiak, pertsonaiak, musikak eta dantzak Horri lotutako ondorioa da, paisaiak, gastronomia edo kirolak, osatzen duten ikuspegi turistikoak gora egin duen bitartean, nortasunari eta identitateari lotutako ezaugarriak behera egiten dutela nabarmen. Bestalde ondorioztatu dugu euskaraz edo erdaraz ekoizten diren testuliburuak ez direla berdinak. Azterketa diakronikoaren bidez islatzen da XX. mendearen hasieratik 70. hamarkadara euskaraz argitaratu direnak Euskal Herrian sortu eta ekoiztu direla; handik gora badirela euskaldunok euskaldunontzat sortuak eta badirela itzuliak ere, hizkuntza itzultzen zaienak baina edukia bere hartan utziz. Mendearen amaierarako testuliburu gehienak gaztelearen ereduera jo dute, Europara barik periferiara begiratu. Edozelan ere, lehia desorekatuan dira ikuspegi soziokulturala –testuinguruari lotua– defendatzen duten argitaletxeek eta ikuspegi hegemonikoa defendatzen duten erdal argitaletxeek, eta horrenbestez, zaila da nork bere curriculum testuliburuetan islatu ahal izatea.

1.4. Tesietatik haratago eratorritako ondorioak

Testuliburuak izan duen garapenean, teknologiak, pedagogiak eta psikologjako teorizazio berriek ere izan dute eragina ikerketa lanotan, tesietatik haratago joan diren ikertaldearen ekarpen nagusiak:

1. Testuliburuak erabat aldatu dira XX. mendearen hasieratik hona, formaz zein substantziaz. Mende hasieran sormen propioa nagusitzen da, ekimen edo saiakera soltea izanik ekoizteko erarik arruntena. Bestalde, euskararen erabilerari begiratu gero, alde nabarmena ikusten da aro batetik bestera. Mende hasieran, testuliburu bere edukia bidez sozializazio tresna bihurtzen zen. Hizkuntza aldetik, liburua euskaraz burutzen zen, euskal mundutik sortzen, belaunaldi berriei euskal mundua transmititzeko. Giro hartan, euskararen berreskurapena nahitaezkoa zen, eta berearekin batera, Euskal Herriaren nortasunari eutsi behar zitzaion. Horregatik, edukiak euskaraz burutu behar ziren, euskara lantzeko, kultura ezagutzeko eta aberria maitatzeko. Horrez gain, hiztegigintza bultzatu nahi zen, jakintzagaiak euskaraz idatziz. 1975etik aurrera Hegoaldeak markatzen du euskal produkzioaren erritmoa, estatuko hezkuntza legeak hala bultzatuta. Ikastolak hedatuz doaz, baita euskal irakaskuntza ere. Hezkuntza legeak hala bideratuta, arlo bakoitzerako testuliburu behar denez, argitaletxeek testuliburuak eta era guztietako baliabideak ekoizten dituzte, gero eta handiagoak diren eskariak asetzeko. Cinsa, Elkar eta Erein argitaletxe komertzialak sortzen dira. Euskaraz zortzi dira testuliburuak ekoizten dituzten argitaletxeak, batzuk Euskal Herritik kanpokoak. Izan ere sasoi honen amaieran hasten dira kanpoko argitaletxeak, –San-

tillana, Edebé, Bruño, Edelvives, eta SM-, euren produktuak euskaratzen eta euskal irakaskuntzan saltzen. XX. mendearen azken hamarkadak hezkuntza lege berria dakar Hegoaldean, eta berarekin batera testuliburu berrizatzea. Ez dago ahazturik, XX. mendearen azken hamarkadak hezkuntza lege berria dakarrela Hegoaldean, eta berarekin batera testuliburu berrizatzea. Testuliburuak, eta bestelako baliabideak, egokitu egingo dira curriculum berriak mugatzen dituen ezagutza arloetara. Egokitzapen hori kanpoko argitaletxeek egingo dute gehienbat, zeren sasoi honetan euren esku geratzen baita euskaraz argitaratutako ia merkatu osoa; eta gerora horrela dirau, orain arte.

2. Aroz aroko ekoizpenari buruz esan behar da, irauli egin dela testuliburu argitaratze lekua XX. mendean. Mendearen hasierakoak hemen prestatzen ziren hasieratik amaierara: pentsatu, burutu –testu idatzia eta ikonoak–, eta argitaratu. Testuliburu egileak eta marrazkilarik hemengoak ziren, euskaraz osotzen zuten liburua. Plazaratu ere hemengo argitaletxeetan egiten zen. Jakina da, aldi luzean Lopez Mendizabal izan zela argitalpen lanetan ezagunena. Horrez gainera, *Xabiartxo* izeneko liburuaren egilea ere bada, ume euskaldunak irakurtzen ikastekoa, dudarik barik euskal irakaskuntzan ezagunena den liburua. Lopez Mendizabalek 1925ean argitaratu zuen arren lehenengoz, 1960-70ean erabili egiten zen ikastoletan: “liburu honek markatu zuen mugarria, bere garairako ongi argitaratutakoa, John Zabalo Txiki donostiarraren marrazki biziak apaindua” (Telleria 1999,16). Hurrengo urteetan gertatuko dena da mende hasieran euskaraz ekoizten zuten argitaletxeek desagertu egiten direla eta 1975etik aurrera argitaletxe berriak antolatzeaz gain, kanpoko argitaletxeak gaztelaniaz ekoiztutako testuliburuak euskaratzen hasten dira. 1994tik aurrera hainbestean indartzen da joera hau, non Inguruenaren Ezaguera arloari dagokion ia merkatu osoa eskuratzen duten. Bestalde, Euskal Herrian argitaratu diren liburuak gero eta gutxiago dira. XX.mendearen hasieran testuliburu gehienak hemen argitaratzen ziren bitartean, mendearen amaieran gutxi dira bertan ekoiztutakoak. Euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez argitalpen tokiak desberdinak diren arren, azpimarratzekoa da euskaraz Madrilen argitaratzen direla gehienak, %38 zenbaki zehatzetan. Bilbon eta Donostian ere argitaratzen dira, %15 eta %8a. Bartzelonan eta Bilbon kopuru bera argitaratzen da. 2020. urtean egoera antzera mantentzen da.

Ondorioz baieztatu daitekeena da, Euskal Herriko eskoletan irakasteko baliabide nagusia den testuliburu, Euskal Herritik kanpo egin dela XX. mendearen amaieran. 2020an ez dago aldaketarik, argitaletxe nagusiak, materialak euskaraz plazaratu arren, hemendik kanpo dituzte erroak.

3. Euskal Herrian indarrean dauden curriculum ofizialak jatorri desberdinetakoak izanik, proposatzen diren edukiak ez dira modu berean antolatzen. Iparraldeko curriculumean (Perez, Bilbao, Ezkurdia, 2006), eredu agregatua erabiltzen da, Lehen Hezkuntzako Geographie, Histoire, Sciences et Technologie diziplinetarako proposatzen diren edukiak diziplina gar-

biak dira eta. Eduki-multzoak diziplinaka desberdintzen dira programe-tan. Hegoaldean berriz, eredu integratua erabiltzen da, zientzien eta dizi-plinen arteko mugak askoz leunagoak eta moldagarriagoak izanik. Curriculum estatalaren bi egokitzapen dira, Nafarroarako eta EAerako egindakoak. Ingurunearen Ezaguera deritzon arloan, Giza eta Gizarte Zien-tziak eta Natur Zientziak errealitate beraren partaide direla ulertzean, mundu naturala, zientzia “zientifikoek” aztertzen dutena, eta mundu so-ziala, Giza eta Gizarte Zientzia “ideologikoek” aztertzen dutena, elkarren osagarri bezala landu beharko lirateke eta, ez, banatuta, gaur egun egi-ten den bezala. Zeren arazoa hau da: Ingurunearen Ezaguerak funtsean oinarri epistemologikorik ez duen heinean, Ingurunea zehazten duten edu-kiak non eta zein arazoiren arabera hautatzen dira? Galdera hau da: Zientziak eta gero diziplinak markatzen dituzten edukietatik abiatu behar da errealitatearen irudia eraikitzeko, ala, errealitate hurbiletik abiatu behar da diziplinak eta zientziak lantzen dituzten kontzeptu abstraktuetara hur-biltzeko? Baina, izatez, kontrako bideak dira. Errealitate hurbiletik, hau da, esperientziaren mundutik abiatuz gero, bigarren bideari ekin beharko li-tzaioke, errealitateko kontzeptuetatik ezagutza zientifikorako bidea jorra-tuz. Aztertu diren testuliburuetakoko eduki gehienak ingurune geografikoari dagozkioa ikusten da, mota honetakoak baitira %23a. Pertsona, norba-nakoari lotzen direnak ere garrantzizkoak direla erakusten dute datuek, mota honetako edukiak %22ko maiztasunera heltzen dira-eta. Garrant-zirik handiena, beraz, pertsonari eta bere inguru espazialari ematen zaio, geografian lurraldea eta paisaia baitira kontzeptu garrantzitsuak. Ingu-rune fisikoaren eta naturalaren presentzia nabarmena da testu-liburue-tako edukietan, %18ko maiztasuna erakusten baitute. Teknologia eta ekonomia dator hurrengo %15arekin. Hiru multzo hauetan pertsonaren inguru naturala, lan-mundua eta ekonomikoa lantzen dira bereziki. Bes-talde, argitu nahi izan da, hizkuntza batean edo bestean eduki multzo ba-koitzari ematen zaion garrantzia. Horrela, aurkitzen dena da Frantziar eta Espainiar curriculum eredu ezberdinak erabiltzen diren arren, hango eredu agregatuaren, eta hemen integratuaren arteko, antzekotasun edo desberdintasunak ez direla hain handiak. Pertsonari dagokion edukia eta hizkuntza edo kulturari dagozkionak antzera lantzen dira hiru hizkuntzetan. Geografiari buruzko eduki multzoari, hau da, lurralde erreferentziari ere, leku handia ematen zaio, berdintsua hizkuntza guztietan. Eduki fisiko-na-turala frantsesez gutxiago lantzen da, baina indar handiagoa jartzen dute eduki tekno-ekonomikoetan nahiz historiari dagokionean eta politiko ins-tituzionalean. Euskarazko eta gaztelaniazko testuliburuetan lantzen dena, bestalde, oso antzekoa da. Eduki fisiko-naturalari frantsesez baino leku handiagoa ematen zaio; gaztelaniazkoetan, ordea, eduki multzo histori-koari euskarazkoetan baino garrantzi handiagoa ematen zaio. Mende ba-teko ibilbide horren amaieran euskaraz eta gaztelaniaz lantzen diren edukia antzekotasun handia erakusten dute, lehen hizkuntzak eta edu-kiak lotura zuten –hizkuntza bakoitzean curriculum desberdina lantzen zen heinean–, oraingo testuliburuetan, ordea, lotura hori galdu egin dute,

hizkuntza batean eta bestean proposatzen diren edukiak guztiz parekoak baitira. Hurrengo lerroetan ikusiko da XXI. mendeko testuliburuak oinarri estatala erakusten dutela.

4. Testuliburuetako edukiak trataera edo zehaztapan desberdina agertzen dute. Euretarioko batzuk inon zehaztu barik geratzen dira eta gainontze-koei, ostera, testuinguru zehatza ematen zaie. Curriculumaren gaineko teoriak diote bi azter gune direla nagusi: bata, Zer irakatsi eta bestea, Nola irakatsi. Auzi hori ikuspuntu desberdinetatik erantzuten den arren, autoreontzat garrantzi handikoa da ikasleak ikasi behar duena finkatzea, zein ezagutza den funtsezkoa curriculumean ager dadin. Izan ere, ezagutza oro da kulturala, pertsonak bere identitatea sistema kulturean eraikitzen du, bizi den talde soziokulturean. Arrazoi honegatik eskolatan irakasten den edukia euskal nortasun soziokulturean oinarritzen den ala ez jakin nahi izan da. Horrez gain, edukien erreferentzia zein den argitzeari ekin zaio, edukia zehatza izatea edo inon kokatu barik lantzea ez baita garrantzi gabeko gertaera. Sei aukera dira ikerketan mugatu direnak edukia testuinguratzeko: soziokulturala, juridikoa, nahasia, kanpokoa, estatala eta zehaztu gabea. Iker lanetan, XX. mendetik XXI. erako pasabidean, Euskal Herriarekiko erreferentzia asko galdu dela baieztatzen da, izan ere, orain artean ikusi den joera bera da hau, 2000. urtearen osteko testuliburuak erakusten zutena. XX. mendearen hasieran argitaratutako *Lutelestia*, *Sabin Euskalduna* eta *Xabierxo* moduko liburuetan sasoi horretan nazionalistentzat garrantzizkoak ziren edukiak jorratzen ziren, dela familia, dela baserria eta natura, dela erlijioa edo orduko baloreak. Ez da euskal kultura gai espezifiko moduan lantzen, liburuak eurak dira Euskal Herrian eta euskal kulturaren gainean eraikitakoak, gainera, aberria eta abertzaletasunari garrantzi handia emanez. Bestalde, badirudi, liburuan erabiltzen den hizkuntzak ba daukala eragina hizkuntza bera azaltzeko orduan. Euskarari buruzko azalpenetan euskarak hartzen du protagonismoa eta gazteleraz gaztelaniak. 1970eko legearen osteko testuliburuetan euskararen herria da Euskal Herria. Saioka, Bruño, Elkar eta Erein Ibaizabal dira euskararen jatorria, euskalkiak, elebitasuna, alfabetatzea, ikastolak, zein beste hizkuntza minoritariok direla azalpenak ematen dituztenak. Sasoi honetan –1980ko hamarkadan– hasten dira euskararen eta Euskal Herriaren arteko loturak ezabatu nahian. 1990eko legearen eraginez argitaratzen diren testuliburuetan Euskal Herria zein EAE erabiltzen dira euskarari mugak jartzeko. Euskara eta euskal kultura ikuspuntu politikotik jorratuko dira aurrerantzean, lotura soziokulturala gero eta gehiago saihestuz. Orain arteko lan desberdinetan esan dute ikerlariok Euskal Herria oinarri duen testuinguru soziokulturalak XX. mendearen amaierara bidean, atzerantz egin duela etengabe; mendearen hasieratik amaierara –argialetxe guztienak alderatuta–, erdira etorri direla (Bilbao 2002, Ezkurdia 2004, Perez 2003). Eduki soziokulturalak mendearen amaierako hamarkada horretan zuen presentzia erdira etorria zen. Datuek garbi adierazten dute

testuliburuetako edukiak gero eta estatalago bilakatu direla, ingurune hurbilaren garrantzia albo batera utziz. Ikaslearen errealitatek urrun daude eskolan irakasten zaizkion edukiak, ez dute loturarik bere ingurune natural, sozial eta kulturalarekin.

EUSKAL HERRIKO POPULAZIOA

Duela 100 urte, gubi-gora-behera, euskaldun askok emigratu beharra izan zuten. Azken 50 urteotan, berriz, industria asko jarri zen Euskal Herrian eta honek kanpotar asko ekarri zuen gure herria: agian zure gurasoak inmigranteak dira.

Industriagintza Euskal Herri bantuko migrazioen arrazoi ere izan da: baserriak kalera eta herri txikiak hiriak.

EMIGRAZIOA-INMIGRAZIOA

5.-- POPULAZIOA LANEAN

Populazioaren ezaugarriak jabetzeko baldintan bana dezakegu. Sexua, adina, jaioterria... sailkatzeko onarrik izan daitezke. Hemen ogibideak hartuko ditugu onarmitzat.

JENDETZA AKTIBOA: lan egiten duten pertsonen eta langabezia daudenak osatzen dute.

Jendetza aktiboa hiru sektoretan banatzen da:

EUSKAL HERRIKO POPULAZIOA

- * **Lehen sektorea** lurra lantzen dutenek osatzen dute (nekazari, arrantzak, artizan...)
- * **Bigarren sektorea** lurreko emariak eraldatzen dituztenek osatzen dute (industriako langileak)
- * **Hirugarren sektorea** zerbitzuan lan egiten dutenek osatzen dute (ospitaleetan, dendetan, garraroietan, irakas-kuntzan, udalareetan...)

JENDETZA PASIBOA: Gainerakoek osatzen dute multzo hau: jubiaturak, etxekoandreak, ikasleak...

HEGO EUSKAL HERRIKO JENDETZA AKTIBOAREN EBOLUZIOA

SEKTOREA	1975	1983
Lehenengoa	103.300	64.800
Bigarrena	506.900	368.000
Hirugarrena	355.300	364.600

%	L. Sek.	B. Sek.	H. Sek.
1. ARAKA	11,4	84,9	33,7
2. BIZKAJA	5	22	44,9
3. GIPUZKOA	10,8	56,5	32,9
4. NAFARROA	17,7	45,8	37,5
5. IPAR E. H.	63	49	18
6. LAPURDI	7,8	36,2	56

1975eko jendetza aktiboa ere honetan banatzen da: probintzia eta portzentaiak.

Hurrengo marrazkiak datu hauetako batzuen arteko erlazioak erakusten dituzte: ezkerreko sektoreen arteko eta eskuineko sektore baten probintzien artean dauden ezberdintasunak.

LEHEN SEKTOREA

5. Identitatea izan da ikertutako lanetan arakatu den garrantzizko aldagaia. Beste batzuen artean, generoari lotutako emakume/gizon aldagaia aztertu da, ondorioztatuz testuliburuak oraindik, androzentrikoak direla. Agerian jorratzen den curriculumean berdintasunaren aldeko pausuak ematen diren arren, curriculum ezkutuaren bidez generoen arteko desberdintasuna lantzen da. Ikasleek ikasiko duten edukietan ez dago nesken eta mutilen arteko parekotasunik; pertsonarik gehienak gizonezkoak dira, lehen bezala orain ere. Arlo guztietan gertatzen dena da, urteak joan urteak etorri testuliburuetako edukiak androzentrikoak direla, ez direla askorik aldatu. Izan ere, testuliburuetako edukiaren azterketa planteatzen denetik, –paradigma kritikoaren ildotik–, irakasten dena nolakoa den zehaztuz, asko dira generoari buruzko ikerketak. Garreta, Subirats, Blanco edo Nuño ikerlarien lanek, besteak beste, agerian utzi dute testuliburuetako edukiaren sexismoa. Honek guztiak nesken sozializatorako eredu egoikiak falta direla erakusten du. Ondorioz, euren identitate indibiduala zein

soziala eraikitzeko baldintzatuak izan dira. Ana López Navajas (2019) ikerlariaren esanetan “Desde infantil y primaria iniciamos una socialización diferente para niños y niñas, que influye en elecciones posteriores”. Hiru ikerlariok argitaratu dituzten lan desberdinetan (2002, 2003, 2005, 2006, 2008, 2015) ikusi dena da esaten duten hori guztia, generoa nola agertu den eta zelan garatu den aztertu dutenean.

Azken lan horretan agertu zuten emakumeak eta gizonak ez direla modu berean tratatzen testuliburuetan. Ikonografian erakusten diren pertsonak genero eta adin guztietakoak diren arren, argitu beharrekoa da, nolako desberdintasunak gertatzen diren batzuk eta besteak agertzerakoan. “Genero identitatea Lehen Hezkuntzako testuliburuetan” lanean (Perez Urraza, Bilbao Bilbao, Ezkurdia Arteaga 2015) hamarkada bi alderatu dira, jakin nahian LOGSE legetik LOE legera ia generoari lotutako edukietan aldaketarik izan den. Horretarako 1990 eta 2000. urte bitartean argitaratu diren 30 testuliburu aztertu dira, alderatuz, 2001 eta 2010 hamarkadan plazaratu diren 28 testuliburuekin. Aurkitu duguna da aztertu diren 21.293 ikonoetan emakumeak duen presentzia guztiz urria dela gizonezkoak duenaren aurrean. Izan ere, gizonezkoen presentziak garrantzi handia izan du beti testuliburuetakoa edukietan. XX. mende hasieratik amaierara zenbait aldaketa izan diren arren, gizonezkoak dira beti lehenengo lekuan agertzen direnak (Perez, Bilbao, Ezkurdia, 2015). Bestalde, egia izan arren andrazkoak gero eta gehiago agertzen direla testuliburuetan, hori egjaren erdia baino ez da, ezen, gizonak eurak bakarrean askotan agertzen badira ere, andrazkoak eurak soilik ez baitira azaltzen; ez zaie protagonismo handirik ematen. Garrantzi handia daukate biak batera agertzen direneko datuok, zeren emakumezkoak ere hor agertzen diren neurrian, berdintasunaren aldekoak direla pentsarazten baitute, presentzia hutsean geratzen direnean.

Badira bestalde, aipatu barik utzi ezin diren datuak, halaber, umeak gutxitan agertzen direla testuliburuetakoa ikonografian. Horrez gain, emakumeak nola agertzen diren, zein den eurek jokatzeko duten rola, zein egoeratan agertzen diren azterteza ere interesgarria da. Izan ere, testuliburuetakoa ikonografiaren bidez ematen diren identifikaziorako ereduak mugatuak eta estereotipatuak baitira. Emakumeak –gizonezkoek ez bezala– rol gutxitan agertzen dira; familiarekin lotutako egoeretan agertzen dira gehienetan, ama, emaztea, amama edo alabaren rolean. Horixe da emakumeak testuliburuetan agertzeko erarik erabiliena (Bilbao, 2006). Nahitaezkoa da emakumezkoak askoz rol ugariagoari loturik azaltzea, neskek, mutilekin batera, eredu sozial egokiak jasotzeko eskubidea dutelako.

Ikerketak erakusten du orain ere, lehengo moduan, emakumezkoa ez dela subjektutzat hartzen, ez zaiola protagonismorik ematen. Testuliburuetan, legea bera ez betetzeaz gain, generoen arteko presentzia asimetrikoa da oraindik ere.

Testuliburuetakoa ezagutza ofizial arlo akademikoari dagokiona esperientziaren erregulatzailerik handienetakoa da, curriculumaren, pedagogiaren eta ebalua-

ketaren bidez transmititzen da, eta, curriculumean zehaztua dago (Bernstein, 1997, 11-28). Ezagutza hautatzeko, klasifikatzeko, banatzeko, transmititzeko eta ebaluatzeko erabiltzen diren moduek gizartean dauden botere harremanak eta kontrol sozialaren oinarriak islatzen dituzte (Bernstein, 1985, 45-46). Curriculumaren eta ezagutza akademikoaren bitartez identitateak, pentsamoldeak eta Estatuaren zutabeak (indibidua, legea, lan banaketa, bortxa sinbolikoa...) eraikitzen dira, eta baita moldatu ere. Horretarako ageriko curriculumaren bidez oinarritzko ezagutzak ikasgai bihurtzen dira, eta ezkutukoaren bidez ezagutza ofizialak ez direnak estali edo ez ikusiarena egiten da (Apple, 1986, 80). Azken hauen artean kokatzen dira emakumeen gaineko edukiak, errealitate soziokulturalen gaineko ezagutzak, ezagutza ofizialerako hautatzen dena eta hautatzen ez dena, garrantzitsua dena eta ez dena helburu ideologikoei erantzunez antolatzen baita. "Esan daiteke, euskal kulturari lotutako edukiak modu desberdinetan testuinguratzten diren arren, gehienak ikuspegi hegemonikotik lantzen direla, ikuspegi soziokulturaletik lantzen direnak oso gutxi direla, Euskal Herrian kokatzen direnak, beherantz doaz-eta. Ikuspegi hegemonikoa, estatua zein autonomiatik pasatzen dena, gorantz doa, gero eta finkatuago eta hedatuago agertuz. Testuliburueta aipatzen da Euskal Herria, baina izenez ez izanez, egungo edukietan ez baita testuinguru soziokulturala aintzakotzat hartzen" (Bilbao 2002; Perez, Bilbao 2005).

2. Testuliburueta edukiei buruzko beste ikerketa batzuk

Horagoko erroetan erakutsi den moduan, tesiak abiapuntu izanik, hiru autoreok elkar lanean jarraitu izan dute, hala data-baseko aldagaietan sakonduz nola testuliburu berriagoen hustuketa burutuz. Haien jardunean, euskal testuliburuaren azterketa landu dute, itxuran eta edukian eman den bilakaera agertu nahian. Bide horretan testuliburuak jorratzen dituzten identitateak aztertu dira, besteak beste "Creation of identities at school: the local, state and global identity" (2012) edo "Hizkuntza, hezkuntza eta identitatea" idatzi dutenean. Lehenengoan azaldu zuten "Globalizazioa" gaur egungo pentsalarien espainetan dagoen hitz magikoak esanahi desberdinak hartzen dituela. Hala ere, nazio-estatuaren antolatutako munduko gizartean, giza-banakoa bere oinarritzko ardatzetako bat da. Era berean, honek subjektu mota desberdinak osatzen ditu, herritarra, ekonomikoa eta soziokulturala. Testuinguru sozio-politikoa eta kulturala da aztertu dutena, bertan kokatuz globalizazioari eta herritarren identitateari buruzko analisi guztiak. Garrantzi handikoa da egile desberdinek testuliburuari ematen dizkieten funtzioak: lehenengoaren arabera sozialki eta kulturalki herritar guztiak uniformizatzen edo homogeneizatzen ditu, uniformetasuna adieraziz batez ere, une historikoetako eredu kultural eta sozial hegemonikoetan. Bigarren funtzioa, batzuetan, aurrekoaren osagarria da. Testuliburuak munduaren irudi edo irudikapen bakarra eskaintzen du, horrekin gizartean hegemonikoa denaren eraikuntzan lagunduz. Artikulu honetan azpimarratu nahi izan dutena testuliburuak agertzen dituztela gertaera sozialak zein indibidualak giza eskubideen ikuspegitik. Hala ere, curriculum ofiziala bera jarraitzen duten arren, bertoko testuliburu batzuek globalizazioa ikuspegi ekonomikotik soilik tratatzen duten bitartean, beste batzuek iraunkortasunaren eta ingurumenaren inguruko arazoak barne hartzen dituzte. Tes-

tuliburu estatal hauetan hiritartasuna maila globalean kokatzen da, aurrerapenen irakurketa ekonomikoa azpimarratuz. Hemengo testuliburuetan garrantzi handiagoa ematen zaio herritarraren izaerari maila lokalean, estatukoan eta Europa mailan. Edozelan ere ondorio nagusiak esaten dutena da, testuliburuak hiru kontzeptu aipatzen dituztela: munduko herritartasuna, munduko herritarrak eta herritartasuna mundu globalean. Horrez gainera, Giza Eskubideak oinarrizkoak dira testuliburuetan eta baita ere globalizazioaren alderdi negatiboak, hau da, ingurumena hondatzea eta herrialde aberatsen eta pobreen arteko hutsune izugarria. Hala ere, aurkezten dute hiritar kosmopolitaren eredu ideala, orokortu ezin dena.

2.1. Identitate politikoa eta hiritartasunari buruzko ikerketa

Identitatearekin jarraituz, aipagarria da 2004tik 2007ra bitartean MANES ikertaldeak abiatuko I + G + B (2004-2007) Plan Nazionalaren arabera finantzatutako SEJ2007-660978 Ciudadanía, identidades complejas y cultura política en los manuales escolares españoles (1978-2006) ikerketa proiektuan parte hartu zuten, Gabriela Ossenbach Sauter ikerlari nagusia zela. Ikerketak hezkuntza sistemaren eskuliburuak (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta lanbide heziketa) hiritartasunari ematen dion tratamenduari buruzko azterketa konparatiboa proposatzen du. Ikerketaren helburu nagusia, beraz, eskuliburuak herritartasunari egiten dioten transmisioan oinarrizko litzateke, Andaluzia, Gaztela-Leon, Katalunia, Galizia, Eskadi, Madril, autonomia erkidegoetako lagin adierazgarria erabiliz. Aztertzen den epealdia 1978-2006 urte bitartekoa da, hots, Espainiako Konstituzioa indarrean dagoen 1978. urtetik aurrera, barne hartuz Hezkuntza Lege Organikoa (LOE) onartzen den urtea, zeren LOEk indarrean jartzen du derrigorrez “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgai berria. Madrileko UNEDeko MANES Zentroak zuzendutako ikerketa honek, eskuliburuak aipatutako gaiari eman dioten tratamenduari buruzko azterketa konparatiboa proposatzen du: identitate konplexuen euskarri gisa, kultura politiko baten sortzaile gisa eta hiritartasuna gauzatzeko ereduen sortzaile gisa. Proiektuaren emaitza da, besteak beste, datu-basea, zeinetan “Gizarte Zientziak”, “Hizkuntza eta Literatura” eta “Hiritartasunerako eta Giza Eskubideetarako” diziplinetako eskola-eskuliburuak aurkituko diren, 1978tik 2008ra uneko Espainiako argitaletxe nagusiek argitaratuak autonomia erkidego desberdinetarako.

2.2. Paisaia, oinarrizko ezagutza Euskal Herriko testuliburuetakoko curriculumean

Atal honetan aipatuko da testuliburuak identitate desberdinak eraikitze bidean eredu askotarikoak jorratzen dituztela, hala hiritarrarena, nola emakume/gizona-arena edo euskal kultura zein lurraldearena. Eduki hauen azterketan frogatu da eduki gorakaria dela paisaia, eta hala adierazi zuten “El paisaje: un concepto básico en el currículum desarrollado en los libros de texto del País Vasco” artikuluan (2015). Paisaia aurreko belaunaldiak bizi eta eraikitako espazio gisa ulertzen da, ikaslearentzat ingurune hurbila dena. Aurreko lanetan iragarri den moduan paisaia modan dagoen edukia da, lehen hezkuntzako testu liburuetan gorakaria den edukia. Hurrengo datuetan islatzen da eduki horren gorantzako bidea.

1. taula: Paisaiaren agerpena ikonografian

Epeak	Ikonoen %
1875-1974	5,1
1975-1990	19,11
1990-2006	36,48
2006-2010	39,23
GUZTIRA	%100

Ikusten dena da etengabeko gorabidean joan dela hasieratik, aztertutako azken epean ia ehuneko 40ra heldu baita. Datuok erakusten dute testuliburuetakiko ikonografian paisaiaren erabilera, baliabide didaktiko gisa, gero eta handiagoa dela, eta LOGSE eta LOCE legeriaren arabera sortutako testuliburuetan izugarri handitzen dela. Bi kasuetan paisaiaren presentzia oso nabarmena da, %36,48 eta %39,23, hurrenez hurren. Bestalde, paisaia eduki gorakaria izateaz gainera, gaur egun ekologia, iraunkortasuna edo ondarea bezalako kontzeptuekin lotuta dago. Paisaia naturala ingurumenaren ezagutzarekin eta ingurumenaren zaintzarekin lotzen den bitartean, paisaia urbanoa gero eta presenteago dago testuliburuetan.

2.3. Beste ekarpen batzuk irakurketa eta berrikuntza pedagogikoaren harira

Hortik landa, euskarazko irakurketa alorrera lerratuz, Mendebalde Kultura Alkartean, 2005ean, argitaratuta dago *Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian* (Gaminde, Goikoetxea eta beste), ahozkotatzen gainera azterketa eginez eta zuzentasunerako irizpideak emanez.

2002az geroztik Mendebalde Kultura Alkarteak argitaratzen duen *Euskalingua*, online aldizkari akademikoan, zein antolatzen dituen jardunaldietan plazaratu dituzte lan batzuk, batez ere, hizkuntzarekin eta euskal kulturarekin zerikusia duten gaiak. Adibiderako “Curriculumeko eduki gorakariak 2000. urtetik hona”, “Eusko Ikaskuntzako lehen kongresuko irakaskuntza arloko ekarpenak” edo Emakume Abertzale Batzaren sorreraz eta jardueraz agertu dena (Ezkurdia, Bilbao, Perez 2017).

Bestalde, jakina da euskarazko testuliburugintzak irakurketa irakasteko aleak sortu dituen saso desberdinetan. Iñaki Gaminde omenduz plazaratu den liburu-rako (Etxebarria eta beste 2018), ustez Bilbon sortutako silabategia aztertzeo ardua hartu zuten hiru autoreek. Horretarako, *Aurtxoa I* eta *Aurtxoa II* silabategiak ikertu dituzte ondorioztatuz irakurketa metodoek frankismoak euskaraz ikasteari jarri zizkion oztopoak gainditzen lagundu zutela, edukiak Euskal Herriko ingurune soziokulturalean erroturik eta baserria, kalea edo itsasaldea, batera landuta. Artikulu horretan adierazten da irakurtzen irakasteko liburuak direla silabategiak. Horregatik, euskaraz idatzitako silabategiak aintzakotzat hartu dira hurrei euskaraz

irakurtzen irakasteko Foruen aboliziotik aurrera. Euskararen asimilazioaz batera berreskurapen saio ugari egiten dira, eta ekimen horietan euskal irakurketa lantzeko silabategiak ezinbestekotzat hartzen dira. Silabategiei hasiera eman zion *Iracurtzaren asierac edo lenasteac Euscalerrico aurrentzat* izenekoak, Geronimo Zalacainek 1875ean Tolosan argitaratuak. Datuetan azkenengoa da *Aurtxoa, I* eta *II* lehenengoa bizkaieraz eta gipuzkeraz plazaratu zela eta bigarrena bizkaieraz. Tolosan sortu arren, hango eskolapioetan lanean zebiltzan Itziar Orbea eta Jose Ramon Arteta maisu-maistrek egina eta Xabier Egañak marraztua, Bizkaian oso erabilia izan zen. Euskal testugintzak bide berriak urratzen ditu, oztopoz beteak: argitaletxeen sorrera, salmenta-eremu mugatua, ekonomia arazoak, metodologia aldaketa, egile gutxi eta hasi berriak... Bizkaian EDILIK, eta gero EUZKERAZALEAK elkarteak, isilean eta agerian, sekulako lana egin zuten euskal irakaskuntza materialez hornitzeko. Horrez gainera, garrantzizkoak dira lan honetan argitu ditugunak: alde batetik, *Aurtxoa* silabategia Tolosan sortua dela, ez Bilbon, eta bestetik, egileak direla Jose Ramon Arteta eta Itziar Orbea, une horretan Tolosako eskolapioetan irakasle zirenak.

Berrikuntza pedagogikoetan arreta jarririk –hain zuzen, kasu askotan testuliburu berriztatzearekin lotuta dagoenean–, *La Galera* sorta aztertu zuten autoreek “*La Galera: análisis de su influencia en la renovación pedagógica en el País Vasco*” (2016), ondorioztatuz, ikastoletan 1965-1980 bitartean erabili ziren material hauek Kataluniako Rosa Sensat mugimendu pedagogikoaren ildoari jarraiturik osatu zirela, eta aldaketa kualitatiboa ekarri zutela irakurketa metodoetara. Horrez gainera, artikuluan esaten dena da irakurketa eta idazketa irakasteko material berri hauen erabilera ardatz bihurtuko direla euskararen irakaskuntzarako eta ikasgelako eguneroko dinamikan, Gordailu talde pedagogikoaren bitartez. Hirurogei eta hirurogeita hamar hamarkadetan irakaskuntza publikora heldu ziren andereño eta maisuen praktikak ezagutza pedagogiko bihurtu ziren, eta horrek nolabait baldintzatu zituen 80. hamarkadan masiboki txertatutako irakasleen irakasle euskaldunak. Irakurketa material horien salmenta kopurua eta zabalkundea ikusita –trebakuntza ikastaroen bidez–, esan daiteke corpus pedagogiko eta didaktiko berria osatu zutela, urte haietan indarrean zegoen curriculumarekiko. Bestalde, Gordailuk irakasleriaren prestakuntza alternatiboa bultzatuko du, eskola normaletan jasoko dutenaren osagarri teoriko-praktikoa izango dena. Horrez gainera, oinarri hirukoitza izango du jasoko duten formazioak: pedagogikoa, didaktika oinarri izango duena; psikologikoa, ikastearen psikologian oinarritutako metodoen erabilpena bultzatuko duena; soziologikoa, ingurunearen ezaugarrietan oinarritzeko baldintzak ezagutzeko balio duena. Gordailuk baliabide pedagogikoak sortuko ditu 1970. hamarkadan, “Ikastolako liburutegia” deritzonak arrakasta handia izan zuen laguntzarako material gisa. Horiez gainera, oso erabiliak izan ziren haur eskolarako matematika lantzeko fitxak ere.

Horri guztiorri segida emanik, “*Los libros de texto en euskara y los procesos de renovación pedagógica en el País Vasco*” artikuluan (Ezkurdia, Bilbao, Perez 2018) jaso da noraino izan diren testuliburuak berrikuntzarako tresna, beti ere, irakaslearen eraginaren menpean direlarik. Testuliburuak edo bestelako curriculum materialek irakasleen prestakuntzarekin duten erlazioa aztertzen bada, bialdi bereiz daitezke. Lehenengoan, 1960 eta 1980 hamarkadaren amaiera artekoan,

baliabide curricularren ekoizpenaren eta berritze pedagogikoaren arteko lotura estua dago. Irakaskuntza materialaren ezak irakasleen arteko lankidetzari ekarriko du –garai honetako ezaugarriak dira–, esperientzia pedagogiko berritzailetan oinarritutako irakaskuntza material berritzaileak prestatzeko. Gogoan hartu behar da, aurrekoaz gain, irakasleek lan-taldeak osatu zituztela, pedagogia berritzeaz gainera, prestakuntza saioak oinarri hartuta irakasteko material berritzaileak garatzea ahalbideratuko zutenak. Bigarren aldia, 1980aren mugan, EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioaren transferentziak abiatzen da. Bertan, euskara irakasteko eredu linguistikoak ezartzen dira. Ostean, 1990eko LOGSE hezkuntza legea ezarriko da hegoaldean, gaur arte luzatu den eskema curricularra. Egokitze trantsizio aldia badago ere, esan daiteke, LOGSE (Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorra, 1990) onarpenarekin, epe luzea hasten dela irakaskuntzan, orain arte ezagutzen ziren berritze pedagogikoen mugimenduak geldiarazten dituenak. LOGSEk aurreko aldiko lerro kurrikularrak uniformatu egiten ditu, curriculum itxiagoa eta zentralizatuagoa da, eta eskualdatutako administrazioek eskema hau maila autonomoan erreproduzitzen dute. Bialdi horiek berrikuntza pedagogikoaren ikuspegitik alderatzen badira, ondorioztatzen da lehenengo alditik bigarrenera lan-eskemaren eraldaketa gertatuaz batera irakasleen prestakuntzari eta hobekuntzari buelta eman zaiela, baita prozesu horietan parte hartzen duten eragileei ere. Berrikuntza pedagogikoa oinarritzat izatetik –irakasleen eraginez bultzatutakoa–, instituzioen bidezkoa izatera igaro da. Harrezkero, hezkuntzako administrazio autonomoak dira irakasleen prestakuntza prozesuak zuzentzen eta instituzionalizatzen dituztenak.


2.4. Euskal Hezkuntzaren Memoria eginez

Hiru autoreen testuliburuaren gaineko laburbiltze lana *Hermes* aldizkarian –2019ko uztailera zentzuan– Euskal Hezkuntzaren Memoria mintegian azalduetako hiru ekarpenak jasotzen dira eta. Karmele Perez Urrazak “Ikastola euskal irakaskuntzaren ardatzean” dionez, XX. mendean ikastolak hezuramitu du euskal irakaskuntza, eta horri esker egun Euskal Herrian %80tik gora dira euskaraz ikasten duten ikasleak. Bi mende luze pasatu dira lehen ikastola sortu zenetik gaur arte. Ibilbide historiko horretan sei aro nagusi bereizten dituzte egileak: 1) lehen ikastolen sorrerari dagokiona (1896-1931); 2) Espainiar Estatuko II. Errepublikan lorotutako euzko ikastola batzarena (1931-1937); 3) Frankismoaren gordintasunean isilpean sortutako ikastolei dagokiona (1937-1960); 4) Herri mugimendu gisa emankor eta gorabidean sortu zen ikastolaren mugimenduari dagokiona (1960-1982); 5) Arazo ekonomiko eta ideologikoen ikastolatan sortutako hausturaren garaia (1982-1993); 6) Estatu bien mugak gaituztuz Ikastola Europar Elkargoaren epealdia (1993-2020). Ikastolaren historiak erakusten du Ikastola ekimen kolektiboa izan dela, Euskal Herrian sortua eta Euskal Herriari lotua. Ikastola hiri-eskola izan da gehienetan, indarrean egon den eskola ofizialen aurka erresistentzia eskola gisa sorturik, halaberrez. Horregatik, ikastolaren mugimendua gatazkatsua izan da beti, gazi-gozoz betea sortu zenetik gaur arte. Baina gatazkatsu bezain aberats ere bai, zeren euskal irakaskuntzaren historian ikastolak berrikuntza pedagogikorako urrats sendoak eman behar izan baititu etengabe, eredu gisa bizirik irauteko, eta euskal gizarte eragile askoren eztabaida ideologikoari aurre egiteko.

Gurutze Ezkurdiak, “Euskaldun izatetik elebidun izatera: euskaldun-zearen ardura” –*Hermes*, 2019, uz-taila–, ezagutzaren kontrola eta alfabetatzeak izan duen ibilbide historiakoari egiten dio errepaso. Euskara ahozkotasunean murgilduta bizi izan da historiaren aldi luzean, eta alfabetatzea eta ezagutza ofiziala erdal hizkuntzekin lotua izan da. Hasieran, Latinaren hegemoniaren sasoi-eretan, –monastegien garaietan–, eta erromantzeen hasieretan –erdi aroko errege eta nobleziaren garaietan–, eliteen hizkuntzak izan dira, eta ezagutza ofiziala horietan idatzia izan da. Ondoren, Aro Modernoarekin batera, latinak tokian-tokiko hizkuntzei lekua eman die, eta hori dira lehen letrak euskaraz, Etchepare eta Leizarraga esaterako. Xumea bada ere, euskararen ibilbide idatzia hasia da, elizarekin lotua, baina unibertsitate-eratik gabekoa. Ondoren, iraultza

burgesa eta industrialarekin batera, Estatu-nazioaren eraikuntzak ekarriko du alfabetatze unibertsalaren beharra, eta ezagutzaren kontrola elizaren eskuetatik Estatuarenetara pasatuko da, Unibertsitateen bidez. Modu horretara, ezagutzaren iraultza bideratuz. Azkenik, etorkizuneko atarian gauden honetan, Komunikazioaren iraultzan murgilduta, ezagutzaren metaketa eta kontrola Estatuaren eskuetatik esku pribatu-erara pasatzen ari da. Hausnarketarako uzten da, euskaraz eta euskaraz mintzatzen den taldeak, estaturik izan ez, eta ondorioz, ezagutzaren kontrola izan ez duenak, etorkizunean zein botere izango duen, euskaraz sortu eta eraiki den ezagutza menperatzeko. XXI. mendeko sare berrietan euskal ezagutzaren kontrola noren eskuetan jartzen den hausnartu beharko du.

Hermes ale berean Begoña Bilbaok, “Euskaraz irakatsi eta ikasteko testuliburuaren historia” eginez, XX. mendeko bilakaera azaltzen du, sasoi bakoitzean izan diren eredu pedagogikoen baliaturik. Azpimarratzen da “Euskal Herrian liburugintzak gora-behera handiak izan dituela, eta horren arrazoiak gizartearen garapenean izandako gertaera historiko-politikoetan eta kulturaren beraren garapen moduetan aurkitu behar direla”. Gaur eguneko testuliburuetatik hurbilen dagoena Zalakainen silabarioa izan daiteke, *Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat*. Lehenengoz da helburu euskararen irakaskuntza, erdara bigarren lekuan geratuta. Aipagarria da *Agakia* Ormaetxea abadearena, “euskeras irakurten ikastekoa”, irakurketa eta idazketa euskaraz irakasteko lehenengo pausua eman zuelako. Euskarazko testuliburu-gintzaren lehen loraldia 1918an Oñatin burutu zen Euskal Ikasketen kongresuaren ostean gertatuko da. Haren emaitza dira 1920an, Bizkaiko Aldun-



diak *Euskeraz irakurtzeko irakaspidea* eta *Lenengo ikaste mallarako euskal-zenbakitzia* argitaratzea. Sasoi honetakoak dira Lopez Mendizabalen *Umearen laguna*, *Ume koxkorrentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya*, edo *Xabiertxo*. *Sabin euskalduna*, *Martin Txilibitu* edo *Txomin ikasle* silabarioak ere sasoi berekoak dira. Bigarren loraldia 1960. hamarkadan abiatzen da Julene Azpeitiak osatuko duen *Umien Adizkidia* liburuarekin. Epe honek aldaketak ekarriko ditu arlo sozialean eta pedagogikoan, ikastolen bilakaerarekin batera. Ordukoak dira *Giza Soina*, edo *Aurtxo* eta *Aurtxo II* silabategiak. Berrikuntza handia ekarriko zuena *La Galera* izan zen, Kataluñako Rosa Sensat taldeak prestatu zuenetik euskaratua. Gordailu talde pedagogikoaren liburuetan, bestalde, Freinet izan zen iturri; bide horretan metodo globala hartuta ikasleari parte-hartze eta askatasun osoa eman nahi zioten. Une berean Bilbon, Iker taldeak *Saioka* Proiektua abiatu zuen, lehenengoz maila guztietarako eta curriculum osoa lantzeko erabili zena. Saiokak eskatzen zuen metodologia, proiektuetan oinarritzen dena, sasoi hartan guztiz aurrerakoa izan zen, horregatik, *Saioka* mugarri izan zen euskal testuliburugintzan. Erein, 1977an eta Elkar, 1979an, hasiko dira testuliburuak euskaraz sortu eta argitaratzen. Hurrengo epea, gaur arte datorrena ia aldaketa barik, esanguratsua da euskal testuliburugintzaren garapenean ze, 1990ko hezkuntza legeak curriculum aurreratu gero eta berdinagoa egingo du, alde batetik Nafarroa eta EAE desberdinduz, eta bestetik, argitaletxe estatalak indartzuz. Horrela, argitaletxe estatalak –Santillana, SM, Edelvives...–, merkatuaren zatirik handiena hartuko dute hemengoan –ELKAR, EREIN, Ibaizabal...– kalterako. Guztiz aldatu da egoera mende hasieratik amaierara, hasieran euskaraz ekoizten zuten argitaletxeak desagertu egiten dira eta 1994tik aurrera hainbestean indartzen da joera hau, non argitaletxe estatalak ia merkatu osoa eskuratzen duten. Ezer berituko bada administrazioaren kontrol pekoa izango da.



3. Emakume eta maistren protagonismoa berrikuntza pedagogikoan

Beste alde batetik, gogoratu behar da nola hasiera-hasieratik, emakume/gizon aldagaia aztertu zela Ikerlarion tesi lanetan, eta ondorioztatu zutela testuliburuak, oraindik, androzentrikoak direla. Hala ulertzen da euren iker gune berrian 2012tik gora, emakumeak izen propioz izendatzea. Izendatu ere, *Emakumeak, hitza eta bizitza* deritzon liburuan, EABren –Emakume Abertzale Batzaren–, 90. urteurrena antolatzeke idatzian abiatu. (Bilbao eta beste 2012). Han jaso ziren talde horretan aritu ziren emakume batzuen zertzelada biografikoak. Liburuan, besteak beste, emakumeak abertzaletasunaren giltzarri aurkezten dira, EAB erakundearen historia errebasatuz. Fenomeno feminista berantiarra izan arren, ahalegin handia egin zuen esparru publikora iristeko (Rekalde, 2012) Emakume haiek, adimena erabiliz bizitza publikoan parte hartzeko bidea zabaltzen zuten. “Adimen emozionalarekin erakutsi zuten gaitasuna zutela beren sentimenduak eta besteak ulertzeko eta bideratzeko” (Urkiza, 2012, 97). Egin zuten guztia bake denboran zein gerra eta gerra osteko erresistentziakoak makilen garaira eramane zituzten. “EABn ibilitako hainbat emakumek, abagune eta egoera arriskutsuen gainetik, ederki frogatu zuten merezi zutela, eta erabiltzen ba zekitela Errepublikak kostata onarturiko eskubide politikoak bere osotasunean izatea, lege, muga eta arau guztien gainetik, diktadura frankistaren zartada errepresiboa pairatu zuten arte” (Chueca, 2012, 123). Horrez gainera, emakumeak hezkuntzaren eragile gisa aztertu ziren (Perez, Ezkurdia, Bilbao 2012), EABkoen zereginetako bat horixe baitzen. Ados agertzen dira Itziar Rekalderekin diotenean “Euskal emakume nazionalisten erakundea –EAB– aztertu, gogoratu eta balioetsi egin behar da, ahalegin eragingarria egin zutelako emakumeentzat gogorra bezain latza zen testuinguru politiko eta sozialean” (Rekalde 1912, 21). EABk sortutako Euzko Ikastolak, II. Errepublikan hedatu ziren, 1936ko gerrateak bertan behera uztea ekarri zuten arte. Ikastola hauek hizkuntza, helburuz eta pedagogiaz alternatiboak izateaz gainera, eskolaren eraketari, metodologiari, irakasleriaren prestakuntzari. eta umeek erabiliko zuten materialari. Euzko Ikastola Batza, antolaketaren arduraduna zenak, eskola-eredua aurrera eramateko, Bilbon eraiki zuen *Errotatueta* eskola. Guztira 1936an 15 ikastola zeuden Bizkaian eta bakarria Gipuzkoan, Bergaran. Ikasgelak talde-lana ahalbidetzeko antolatuta zeuden, esperimentaziorako eta ikasleen eztabaidak eta hartu-emanak bideratzeko aukera eskainiz. European indarrean zegoen “Eskola Berria” eredu hartu zuten, Montessori, Ferriere edo Decroly pedagogo ezagunak bideratu zutena, eta “eskola aktiboa” izenez ezagutzen zena. Euzko Ikastola Batzak, neurria handian, beretzat hartu zituen hurrengo printzipioak: “1) Eskolak aktiboak izan behar du; ikaslearen jarduna ezinbestekoa da, baita bere autonomia ere; 2) Ikasleak eguneroko bizimoduari aurre egiten ikasi behar du; 3) Beraz, edukiak eta jarduerak aukeratu eta antolatzerakoan ikaslearen interesak funtsezkoak dira; 4) Irakaslearen zeregina garrantzizkoa denez, bere prestakuntzak hobeak izan behar du” (Perez, Ezkurdia, Bilbao 2012, 57). Arazo handia zeukaten umeentzako testuliburu egokiak aurkitzen, urriak zirelako. *Xabiertxo*, *Umearen laguna*, *Zenbakistia*, edo *Lutelestia* erabili zituzten arren, matematika lantzeko eta irakurtzen irakasteko materialaren eskasia ikusirik, bi

liburu-egileei proposatu zitzaizen horretan jardutea. Matematika arloa prestatzeko Jose Zabala-Arana Goiriena, "Txipi", "Nabarniztarra" hautatu zen eta, irakurketa liburuak egiteko Julene Azpeitia "Arritokieta" zumaiarra. Arana-Zabalak zenbait liburu prestatu zituen arren, bi bakarrik argiratu ziren Euzko-Ikastola-Batzak aginduta: *Euzkerazko Zenbakera* eta *Daneurtiztia*. Julene Azpeitia idazle eta pedagogoak, 1932an, *Irakurri Matte*, Euzko Ikastola Batzaren enkarguz. Sortu ere, euskaraz sortu zuen, eta Julenek berak prestatu zuen erdal bertsioa. Hiru liburuz osatutako bilduma izango zen arren, gerratean, ez zuen jarraipenik izan. Julene Ovide Decroly pedagogoaren jarraitzailea zenez, harekin bat dator aipatzen duenean ikaslearen nitatasuna (gutatasuna) bere ingurune fisiko eta sozialean eraiki behar dela. Horregatik, Julenek haren "printzipio orohartzaileak" hartzen ditu, eta globalizazio printzipio hori gordetzen du berak idatzitako *Irakurri Matte. Irakurgayak. Lenengo Inguraztija* non 40 orritan 14 gai desberdin jorratuz haurraren hezkuntza indibidual, sozial eta nazionalaren gaia lantzen baita. "Edozelan ere, Euzko Ikastoletako helburua argia zen: eskola umeei beren hizkuntzaren gramatika, beren herriaren geografia eta historia, kristau dotrina, aritmetika, fisika zein kimikaren oinarriak nazionalismoaren ikuspegitik euskaraz eskaintzea, ideologia abertzale horren bidez biharko euskaldunaren oinarria eraiki zitekeelako" (Bilbao, 2019).

Berez, berrikuntza pedagogikoa eta maistrak, lotuta agertzen dira Bilboko eskoletan XX. mende hasieran. Hala adierazten da "Tres mujeres que innovaron la escuela en el Bilbao del primer tercio del siglo XX" (2018) artikuluan. Juliana Agirrezabala, Adelina Méndez de la Torre eta Martina Casiano, maistra izandakoak Bilbon, ekarpen handiak egin zituzten irakaskuntza hobetzeko; hurrak izan ziren Bilboko Maistren Goi Eskolako irakasle. Juliana Agirrezabala, ordura arte Berastegiko eskolako maistra, zuzendari izendatu zuten 1902an, hasiera horretan bere eginkizunik handiena maistren Eskola abian jartzea izan zen. Bilboko Maistren Goi Eskolako klaustroa 1902ko azaroaren 16an bildu zen lehenengoz, Eskolaren irekitze ofiziala antolatzeko. Horrela abiatu zen, Juliana Agirrezabala zuzendari zela, Goi Mailako izaera zuen eskola, agintari batzuren ustez Bilbori zegokion mailakoa. Eskolak bere ibilbidea Erriberako pisu batean hasi zuen arren Julianak lan handia burutu zuen eraikuntza egokia lortu zuen arte. Horrela, Solokoetxen zabaldu zen 1912-13 ikasturtean, berak ezagutu ez zuen ekimena, 1902ko irailaren 4an bat-batean zendu baitzen. Juliana Agirrezabala maistra eta zuzendaria ezaguna zen, orduko prentsak dioenez; ikasturte hasieretan egiten zuen hitzaldiak arrakastatsuak ziren. Irakurri zuen atzenengoan, 1911-12 ikasturtekoan, pertsonaren auto formazioaz berba egin zuen, nabarmenduz "self-education" zeritzonaren garrantzia, maistra hezitzailearen kasuan ezinbestekotzat jotzen zuena. Julianak kantuak eta olgetak umeen garapenerako funtsezkoak direla defendatzen du, esperimendazioa ezinbestekoa dela. Froebelen pedagogiare jarraitzailea da, eta Tolstoik abiatutako eskola erusierarena. *La Escuela Moderna* aldizkari pedagogikoan irakurketaren eta idazketaren prozesu motibatzaileaz idatzi zuen, eta baita haur hezkuntzako beste aspektu batzuek ere. Azpimarratzekoa da, haur hezkuntzako maistra edo maisu gutxi izan zirela aldizkari horretan idatzi zutenak. Prestigioduna zen Juliana. Horrexegatik izan zen deitua 1908an Bilboko Plaza Barrian sortu zen Euskal Eskolarako maistren aukeraketarako. Euskaraz ere idatzi zuen, Kirikiñok zuzentzen zuen *Ibaizabal* egunkarian.

Bilboko Maistren Eskolak arrakasta handia izan zuen XX. mendearen lehen herenean, bai alde akademikoan baita berritzailean nahiz zeukan proiektio sozialean ere. Adibiderako aipatzen da Bilboko ikasleak 1916ko oposaketetan ari-keta onenak egin zituztela, horrela plaza asko lorturik. Bilboko maistrek urtero egiten zituzten jardunaldien berrikuspenak *El Nervión*, *El Noticiero Bilbaíno* eta *Euzkadik* bildu zituzten, nabarmenduz irakasle haien pedagogiako ideia berritzaile-etako batzuk. Aipagarriak dira Martina Casianok ekarriko zituen berrikuntzak, 1913-14tik Zientzien Laborategien kargua hartu zuenetik ikuspuntu pedagogiko esperimentala erabiliko baitu. Martina Casiano Mayor madrildarrak 1905ean lortzen du, oposizioz, Bilboko Maistren Eskolako Zientzien arloko irakasle plaza. Frantsesa eta alemana eza-



Adelina Méndez de la Torre

gutzeak ikasketak kanpoan egiteko laguntza handia eskaini zion. Horrela, 1911n beka jaso zuen Madrilén Kimika ikasketetan sakontzeko, kasu honetan Kimika Praktikoan. Kimikaren praktikotasunean sinesten zuen 1908ko memorian adierazten duenez. Bertan, Maistren Eskoletarako zientzia fisiko-kimikoak zein naturalak irakasteko programa azaltzen du: “Bases para la formación del programa de Ciencias físico-químicas y naturales en las Escuelas Normales de Maestras para que su enseñanza resulte de una aplicación práctica en la vida familiar” (A.G.A., Sección Educación 31/17946). Ostean, Junta de Ampliación de Estudios (JAE) erakundeak ematen zuen beka lortu –emakume gutxi lortzen zuena–, eta Alemaniako Leipzig unibertsitatean urte beteko egonaldian kimikako ikasketak burutu zituen. Handik itzultzean, Bilboko Maistren eskola Solokoetxen aurkitu zuen; bertako laborategi berriaren ardura hartuko du, baita lorategi botanikoarena ere. Kimikaren arloan burutu zuen ikerketari esker Espainiako Fisika eta Kimika Elkarteko kide izendatua izan zen; horrela, 1912ko martxoaren 12tik gora, Elkarte horretako lehen emakumea da. Bere ikerketa *Experimentos de Física* liburuan sistematizatu du. 1915tik gai horretako lehen testuliburua izango da. Martina Casianok zientziaren arloko ekimenak bultzatzen jarraitzen du, bere ikasleen protagonismoa eta esperimentazioa ere erraztuz. Horrela, 1923an Bilboko Maistren Eskolako patioan eraikiko den Meteorologia behatokiko buru izendatuko dute. Berau, Institutu Geografikoaren menpe zegoen. Bilboko Udalak Tonnelot barometroa erosi eta Eskolako patioan jarri zuen. Han jasotako datuak hilerro bidaltzen ziren udalera, eta prentsan argitaratzen ziren. Martina Casianok bere ikasleekin batera egin zion kargu estazio termo-pubiometri-

koari, harik eta 1936ko gerrak bertan behera utziarazi zion arte. Martina Casiano espedientatua izan zen 1937an. Bi urtez lana eta soldata kendu zioten, eta Cadizko Lehen Mailako Irakaskuntzarako eskolara lekualdatu zuten. Bere omenez, UPV/EHUK bere izena eman dio 2016an Leioan zabaldutako parke teknologikoko eraikin bati: “Martina Casiano Plataforma Zientifiko-Teknologikoa”.

Juliana Agirrezabalarekin eta Martina Casianorekin batera, Adelina Méndez de la Torre maistra eta pedagogoa ere plazaratu zuten artikulu horretan autoreek. Emakume honek Bilboko hezkuntzaren garapenean izan zuen garrantzia handiak eragin du azken lana berari dedikatzea. *Adelina Méndez de la Torre maestra en Bilbao de 1897 a 1937* liburuan (Perez, Ezkurdia, Bilbao 2019) haren bizitzako historia jaso da, eta 2019ko urrian Bilbao700 proiektuan kokatuta argitaratu. Adelina Mendez de la Torre maistra eta pedagogoa, emakume ponente bakarra izan zen Oñatin burutu zen 1918ko Eusko Ikaskuntzako Lehen Kongresuan. Hangoa izan zen autoreontzat maistra honetaz izandako lehen erreferentzia. Asturiasen jaio zen arren, Madrileko Maistren Eskola Zentralean “maistra normalista” egiten da, Lehen Hezkuntzan zein Eskola Normalean irakasteko titulua lortuz. Bilbora dator 1897an, oposaketa irabazita. Adelinak Italiara joateko beka lortu zuen 1903an. Une horretan Bizkaiko Aldundiak beka artistikoak ematen zituen, Pariserako edo Italiarako; Udalak proposamen paraleloa eginez, beka zientifikoak eman zituen. Adelina Méndez de la Torre, Maria Cantero eta Aniceto Gil maisu-maistrak izan ziren aukeratuak Ripatransone-n –Italian zegoen Esku-lan Edukatiboan Goi Eskolan– ikastaro bi egiteko 1903ko udan. Metodologia aktibo honek emaitza onak eman zituen. Adelinak defendatu egiten zuen Eskulan Edukatiboaren bidez ikasketa praktikoa burutzen dela, eta umeak parte hartuz modu logikoan ikasten dutela. Junta de Ampliación de Estudios delakoak 1908an eman zuen beka ere lortu zuen maistra honek, lau hilabetez Milán, Ginebra eta Parisen ikasteko. Emandako 76 bekatik Adelina bera eta Juana Ontañón ziren emakume bakarrak. Itzultzean, txosten bi idatzi zituen: “Pedagogía experimental en Milán, Ginebra y París” eta “Pedagogía experimental”.

Adelina Méndez de la Torrek neska helduentzako formazioan sinestuz, abian jarri zuen 1898-99an igandeko eskola Conchan, urte betez bere kontura lan egini. Prentsan idatziz, argi-argi nabarmendu zuen neskek zuten espektatiba eskasa, eta, maisu-maistren arteko bilera deituz, egunero eskolak emango zituen taldea sortu zuen. Ekintza horren eraginez, 1903an udalak neska helduentzako eskola sortu zuen, gizonzkoentzako eskolatik berezita lehenengoz. Bilboko Udalaren Kolonien antolakuntzan ere parte hartu zuen. Batzordeko kide izanez, kolonien funtzionamendurako araudiaren idazkeran parte hartu zuen 1903an. Beranduago kolonien garapena eta emaitzak aztertzen zituen txostena ere idatzi zuen. Baina bere proiekturik pertsonalena eta berritzaileena, eskola jantokia izan zen. Adelinak Paris, Milan eta Madrilgo jantokiak pertsonalki ezagutzeko aukera izan zuenez, Milanekoa eredutzat hartu eta 1911ko otsailaren 1ean Bilbon lehenengo eskola jantokia ireki zuen Kontxako eskolan. Jantokia abian jartzeko, bere inplikazio pertsonalaz gainera, Bilboko eta Bizkaiko pertsonalitate askoren dohaintza eta ekarpenak erabili zituen. “Memoria de la primera cantina escolar establecida en Bilbao” txostenean azaltzen du Milaneko ereduaren garrantzia: lankidetzaren emaitza izatea eta ondo ulertutako udal autonomia oinarria izatea. Adelinak beti defendatu

izan zuen udalerraren garrantzia hezkuntza gaietan, estatuaren gainetik. Kontxako eskolako jantokia eragin sozial handiko ekimena izan zen, egoera prekarioan zeuden familia askorentzat lagungarria, baita hiriko lehen hezkuntzarako ere.

Gorago aipatu da 1918ko Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuan hizlari izan zela Adelina Méndez de la Torre, Eduardo Landeta, Leoncio Urabayen, eta Luis Elizalderekin batera. Lehen Hezkuntza Berria Euskal Herrian gaia hartuta, Adelinak bere pentsamendu pedagogikoaren sintesia egiten du Oñatiko kongresuan. Horrela, eskolak berritzailea izan behar duela dio, bi arrazoi hauengatik: 1) Ikaslearekin lan egiten dakien irakaslea behar da eta errealtatea ezagutzen duena. 2) ezinbestekoa litzateke bertoko hizkuntza, geografia eta historia etxekotzat hartzea eta eskolan lantzea. Adelina Mendez de la Torrek Europako esperientzietan oinarrituta, defendatzen du eskolak izaera hirukoitza izan behar duela, euskaraduna, berria eta herriarena. Hori guztiori bideratzeko udal autonomia proposatzen du. Bere ibilbide profesionala Conchako eskolan garatu zuen arren, 1922an lortu zuen Praktiken arduradun kargua Solokoetxeko Maistren Goi Eskolan. Han maistren praktikak berformulatzeko ahalegina egin zuen: ordu praktikoko gehiago eskatuz eta praktikak ikaslearen ordutegian sartzeko. Adelinak irakaskuntzako materialak diseinatu eta argitaratzen ditu 1900. urtean hasita. Bere lehen lana *Historia de las Provincias Vascongadas* da. Azaltzen du liburuaren helburua dela Historiaren ezagutzarako zaletasuna sustatzea, ikasleak espiritu kritikoan trebatzea, eta herrialdearen historia ikuspegi zientifikotik ezagutzea. Gerora *Historia de Vizcaya* argitaratuko du. Mañarikuaren esanetan historia zalea da Adelina Méndez. Ikuspuntu pedagogikotik begiratuta ere ba ditu lan batzuk: *Cuadernos pedagógicos* –sartua izan zena– 1909an *Cartilla biográfica de niño: alumno de la Escuela Municipal, para uso en las escuelas*, 1917an *Fiesta del árbol* eta 1942an *Libro-álbum de Zoología*. 1937an, espedientea zabaldu eta jubilatuta egin zuten. Ahaztuta dago beste emakume askoren antzera. Guk omenaldia egin nahi izan diogu, Bilbon burutu zuen lan pedagogiko guztiz berritzaileagatik, bere inplikazio pertsonal aktiboagatik, eta planteatu zituen proposamenak defendatu eta aurrera eramaten jakin zuelako. Labur esanik, Bilbon irakaskuntzaren kalitatea areagotzen zuten eskola ekimenen aitzindaria izan zen. *Adelina Méndez de la Torre maestra en Bilbao de 1897 a 1937* liburuaren izendatuta dago 2020ko Euskadi sarirako, erdarazko saiakera atalean.

4. Araba Sareko lau emakumeren biografiak

Ikerlanen artean, gorapagarria izan da Alava Sareko emakumeen biografiak erai- kitzea (2019). Sare hori Bittori Etxeberria, Itziar Mujika, Delia Lauroba eta Teresa Verdesek antolatuta eta mugitu zuten. Bittori, Itziar eta Teresa EABko militanteak ziren eta presoak laguntzen jardun zuten gerra aurreratu ahala. Hasieran laguntzarako eginkizuna zena oinarritzakoa izango zen Alava Sarea antolatuta eta abiatzeko. Bittori Etxeberria izan zen sarea abian jarri zuena, Lasartek eskatu zionean Santoniako hitzarmena lortzeko. Itziar Mujikarekin hitz egin zuen eta honek Delia Laurobarekin. Itziar Mujikak bazekien eta Deliak senarra zuela Dueson eta bisitatzen joaten zela. Delia Laurobak zabaldu zuen informaziorako bidea Dueson, han preso

zegoen Pepe Olarra Itxarkundia batailoikoarekin harremanetan jarrita. Behin Santonñako hitzarmena lortuta Bittorik eraman zuen Iparraldera Agustin Ariztia bidelagun zuela. Dueso, Burgos, Puerto de Santa Maria... kartzela guztietara heldu eta nortzuk zeuden eta zuten zigorra identifikatuz gainera, haiei laguntzen saiatu ziren; "Conmutada" zioen zigilua ere lortu eta behar zenean erabilia, preso askoren bizitza salbatu zuten. Alava Sareko emakumeen lana garrantzi itzelezkoa izan zen: preso zeudenek lagunduz, informazioa lortuz, heriotza zigorrak saihesteko kudeaketan jardunez, eta abar; lan horiek guztiok EABn eskura zituzten sare sozialez baliatuz burutu zituzten. Eusko Jaurlaritza informatuta mantentzeaz gainera, emakume haiek presoan eta familien arteko zubia izan ziren, informatuz, edo kartak eta botikak eramanda, eta diruz lagundurik. Lanean jardun zuten 1940ra arte, II. Mundu Gerra ate joka zegoen arte. Alemanak Euskal Gobernuak Parisen zeukan egoitzan sartu eta hartu zuten dokumentuen artean bazegoen sareaz idatzitako txostena. Urte bereko abenduan Elizondon egin zituzten lehenengo atxiloketak. 1941eko lehen egunetan gainontzeko sare kideak atxilotu zituzten Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. Ondarretako espetxera eraman zituzten guztiak, andrak zelda batean eta gizonezkoak beste batean. Urtarrilaren 12ko gauean Madrilera eraman zituzten, treneko bagoi batean brigada bereziko poliziaekin batera. Han Fomento 9 kaleko txekan sartu zituzten.

Araba Sareko espedienteari 103.590 zenbakia esleitu zitzaion, eta 27 atxilotuen aitortzak entzun ondoren, epaiketa Madrilen egin zen. Azkenean, 1941eko maiatzean sei irten egin ziren, eta 21 geratu ziren epaiketaren zain. Ordurako Las Ventas kartzelan zeuden. Fiskalak Bittori, Delia, Itziar eta Teresari matxinada eta espioitza delituak leporatzen zizkien, gehigarri larri batzuekin. Horregatik, heriotzazigorra eskatu zuen fiskalak eurentzat eta beste askorentzat. Fiskalaren eskaria hain gogorra izanik, 1941eko ekainaren 9an, Bittori Etxeberria eta beste hirurak Claudio Coello kaleko 100.ean egokitutako emakume espetxera igorri zituzten.



Bittori Etxeberria, Delia Lauroba, Itziar Mujika, Felizitas Ariztia eta Tere Verdes

1941eko uztailaren 3an, Las Salesas izeneko Justizia jauregian (gaur egun, Tribunal Gorenaren egoitza) gerra-kontseilua egin zen. Epaimahaiak, fiskalak eskatzen zuena onartu eta 19 heriotza zigor eskatu zituen, Itziar, Delia, Teresa eta Bittorirentzat ere bai. Auditoreak sententziari uko egin zionez, gerra kontseilua baliogabetu eta berriro egin zen hurrengo urtean. Gorabehera batzuen ondoren, 1942ko azaroan jakinarazi zieten sententzia berria. Las Ventasen dauden bitartean preso-kide diren emakumeen laguntzan arituko ziren. Itziarrek arropak zein medikamentuak banatzen ditu; irakurtzen eta idazten ere irakasten die. Bittorik sukaldean laguntzen du, baita kanpoaldea lorategi bihurtu ere. Teresak ekonomatua antolatuko du, eguneroko kontuak eramanez. Gaixorik daudenei odola eman, zaindu, konpainia egin eta sarritan hiltorian dagoenari ere laguntza ematen diete. Emakume solidarioak dira.

Espetxetik 1944ko apirilean irten arren, Teresa, Itziar eta Bittoriri euskal probintzietatik deserriratuta egoteko baldintza jarri zieten, aste beterako etxera etorri eta Madrilera bihurtu ziren, jarritako deserriratzea elkarrekin betetzeko. Delia, gurasoen gaixotasuna medio, Donostiako espetxean zegoen ordurako. Madrileko egotaldian Itziar Cristobal Balenciagarako lanean ibili zen, Teresa papertegi eta bulegoetarako materialen biltegian, eta Bittori Elizondo eta Madrilen arteko joan-etorrian, etxerako baimena lortzen zuen-eta ama gaixorik zegoelako. Teresa Verdes eta Bittori Etxeberria izan ziren etxera itzuli ziren azkenak 1946ko irailaren 1ean. Egun horretako eskutitzean Teresak etxekoei iragarri egiten die irailaren 5eko trena goizez hartuta, iluntzean Bilbora helduko direla. Emakume hauek kartzelatik irten ondoren euren bizitza pribatueta itzulita, militantzia kulturean jarraitu zuten lanean. Muinetik bizi zuten filosofia, EABko filosofia bera, etengabeko ekintzaile egin zituena, beti laguntzeko prest agertuz. Abertzaletasunaren harrotasuna tinko jarraitu zuten bizitza osoan. Guk oroitzapen kolektiborako berreskuratu gura izan ditugu, aberriaren aldeko lan neurtezina burutu zuten emakume aurrelari hauek. Lau biografia horien hedapena hitzaldiz, egunkariz eta Sabino Arana Fundazioak argitaratuko bideo banatan gauzatu da. 2021ean “Izan ginelako” ETB1eko programan ere agertuko dira.

5. Etorkezunean eraikitzeak

Araka ikertaldekoen asmoa da ikerketan auzolanean jarraitzea. Curriculumarekin eta testuliburuekin lotutako iker gunearekin eta EABko emakumeen biografiak eraikitzearekin batera, emakumeek burututako lan eskergea azaleratu eta gizarteratu behar direla uste baitute, gazteek andrazkoek historiari egin dioten ekarpena ezagun dezaten. Euskal Hezkuntzaren Memorian garrantzi handikoa da historia berri-dazteko izandako irakurketak eta esperientziak ezagutzea, hain egoera latzean buru-bihotzez lan egin zuten emakumeak agertzea, izenez izendatzea. Argi dago, ezagutza horrek sexuen arteko eskubide eta aukera-berdintasuna sustatuko duela, eta edonola ere, berdintasunerako ibilbide historiko horretan, emakumeek Euskal Herriaren alde egindako lanagatik zor diegun esker ona hartuko dutela. Hala bedi.

Aipamenak

- AA.AA. *Alava Sarea-Red Álava 1936-1947: Red solidaria y de acción*. Gasteiz: Publicaciones de la Diputación Foral de Álava / Arabako Foru Aldundiaren Argitalpenak, 2019; 392 or.
- ANELE. *El libro educativo en España, informe 2019-2020*. Madrid: Cedro, 2019; 19 or.
- APPLE, Michael W. *Ideología y currículum*. Madrid: Paidós/MEC, 1986; 227 or.
- BERNSTEIN, Basil. "Clasificación y enmarcamiento del conocimiento educativo" In: *Revista Colombiana de educación*, 15 zkia., 1985; 47-75 or.
- BERNSTEIN, Basil. *La estructura del discurso pedagógico*. Madrid: Morata, 1997; 238 or.
- BILBAO BILBAO, Begoña. *Kultura erreferenteak oinarrizko hezkuntzako curriculumean*. Bilbo: UPV/EHU, 2002; 407 or.
- BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele. *Euskal Currículuma ala Euskal Dimentsioa Currículumean?* Donostia: Utriusque Vasconiae, 2004; 176 or.
- BILBAO BILBAO, Begoña "Hezkuntzarako Eskubidea Genero Ikuspegitik: Emakumeen Errolak". In: NAYA, Luis M.; DÁVILA, Paulí. *El derecho a la educación en un mundo globalizado (Tomo II)*. Donostia: Erein, 2006; 87-98 or.
- BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. Bilbo: UPV/EHU-BFA/DFB, 2012; 283 or.
- BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele. "Tres mujeres que innovaron la escuela en el Bilbao del primer tercio del siglo XX". In: *Bilbo: BIDEBARRIETA*, 28 zkia., 2018; 127-159 or.
- BILBAO BILBAO, Begoña. "Euskaraz irakatsi eta ikasteko testuliburuaren historia". In: *HERMES pentsamendu eta historia aldizkaria. Revista de pensamiento e historia*, 62 zkia., Bilbo: Sabino Arana Fundazioa, 2019; 9-22 or.
- CASTELLS, Manuel. *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. Madrid: Alianza, 2000; 656 or.
- CHOPPIN, Alain. "Pasado y presente de los manuales escolares". In: RUIZ BERRIO, Julio. *La cultura escolar de Europa. Tendencias históricas emergentes*. Madrid: Biblioteca Nueva. 2000; 107-165 or.
- CHUECA INTXUSTA, Josu. "Emakumeak erresistentziaren hasiak" In: BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; CHUECA INTXUSTA Josu. *Emakumeak, hitza eta bizitza*: UPV/EHU-BFA/DFB, 2012; 123-143 or.
- DAVILA BALSERA, Paulí. "Los libros escolares en euskera". In: ESCOLANO Agustín. *Historia ilustrada del libro escolar en España. Del Antiguo régimen a la Segunda República*, Madrid:Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1997; 599-621 or.
- ETXEBARRIA LEGARRETA, Aintzane et al. *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*. Bilbo: UPV/EHU, 2018; 416 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze. *Identitatea eta ingurunea curriculumean*. Bilbo: UPV/EHU, 2004; 355 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña. "Umeak ikonografian: testuliburuaren garapena XX. mendean". In: DÁVILA, Paulí; NAYA, Luis M. *La infancia en la historia: espacios y representaciones, Tomo II, (XIII Coloquio de Historia de la Educación)*, Donostia: Espacio Universitario Erein, 2005; 215-225 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña. "Currículumeko edukiak: mende bateko garapena Euskal Herrian". In: BILBAO BILBAO, Begoña, EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze, PEREZ URRAZA, Karmele. *Ikuspegi soziokulturala Euskal Herriko Hezkuntzan*. Bilbo: UPV/EHU, 2006; 123-141 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña. "Presencia y ausencia de los modelos de familia e infancia en los libros de texto. Un análisis comparado del siglo XX". In: LÓPEZ NOGUERO, Fernando. *La Educación como*

- respuesta a la diversidad. Una perspectiva comparada. Congreso Nacional de Educación Comparada*. Sevilla: Universidad Pablo de Olavide/Sociedad Española de Educación Comparada, 2008;149-150 or. (liburu); 15 orri (Cd-Rom).
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña; PEREZ URRAZA, Karmele. "Hizkuntza, Hezkuntza eta Identitatea". In: AIZPURU, Alaitz; ALTONAGA, Bakarne; GALLETEBEITIA, Iban; OLARIAGA, Andoni. *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*. Bilbo: UEU, 2012;105-117 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña. "Creation of identities at school: the local, state and global identity". In: *History of Education & Children's Literature*, IX zkia., 2, Italy: Edizioni Università di Macerata, 2014; 661-679 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña; PEREZ URRAZA, Karmele. "Emakume Abertzale Batza Bilbon". In: *Euskalingua*, 31 zbia, Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, 2017;14-27 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña; PEREZ URRAZA, Karmele. "Los libros de texto en euskara y los procesos de renovación pedagógica en el País Vasco". In: DAVILA BALSERA, Pauli. *El profesorado y la renovación pedagógica en el País Vasco*. Madrid: Delta, 2018; 131-151 or.
- EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze: "Euskaldun izatetik elebidun izatera: euskalduntzearen ardura". In: *HERMES: pentsamendu eta historia aldizkaria*. Revista de pensamiento e historia, 62. zkia., Bilbo: Sabino Arana Fundazioa, 2019; 24-40 or.
- FERNANDEZ PALOP, M^a Pilar; CABALLERO GARCÍA, Angeles. "El libro de texto como objeto de estudio y recurso didáctico para el aprendizaje: fortalezas y debilidades". In: *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 20 zkia (1), 2017; 201-217 or.
- GAMINDE, Iñaki; GOIKOETXEA, Udane; BARRUTIA, Eneko; IZAGIRRE, Esti; GOIKOETXEA, Juan Luis; PEREZ URRAZA, Karmele; UNAMUNO, Maribi. *Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, Izaro bilduma, 2005; 62 or.
- GAMINDE TERRAZA, Iñaki; BILBAO BILBAO, Begoña; PEREZ URRAZA, Karmele. "Proposamen metodologiko berria irakurketa ozena euskaraz lantzeko", In: ETXEBERRIA, Feli et al. *Hezkuntzaren Ikerkuntzarako Ereduak XIII. Biltzar Nazionala: Bizikidetzta, Ekitatea, Kalitatea/ XIII Congreso Nacional de Investigación Educativa: Convivencia, Equidad, Calidad*. Donostia: Erein, 2007; 340-345 or.
- LÓPEZ NOVAJAS, Ana. "La ciencia amputada: sin referencias de científicas en los manuales". In: Bilbo: Bidebarrieta Kulturgunea: «Ellas hacen ciencia» zikloa. (2019-11-14).
- MACEDO, Donaldo. "Revisión de la Pedagogía Crítica. Entrevista a Paulo Freire". In: FREIRE, Paulo. *La naturaleza política de la educación*. Barcelona: Paidós, 1990;172-195 or.
- PEREZ URRAZA, Karmele. *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. Bilbo: UPV/EHU, 2003; 498 or.
- PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze. "Curriculumeko eduki soziokulturalak (1990-2006)". In: LARRINAGA, Ane. AMURRIO, Mila. *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai. Hurbilketa soziologikoa*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2006; 25-54 or.
- PEREZ URRAZA, Karmele; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña. "Euzko Ikastolen andereñoen formakuntza eta eskola praktikak". In: BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; CHUECA INTXUSTA Josu. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. UPV/EHU-BFA/DFB, 2012; 45-69 or.
- PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze. "Genero identitatea Lehen Hezkuntzako Testuliburuetan" In: BUJAN, Karmele; MACEIRA, Luz. *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas. Lecturas feministas*. Oñati: Intxorta, 2015; 137-157 or.
- PEREZ URRAZA, Karmele; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña. "El paisaje: un concepto básico en el currículum desarrollado en los libros de texto del País Vasco". In: *Espacio, Tiempo y Educación*, 2 zkia., (2), 2015; 225-242 or.

PEREZ URRAZA, Karmele; BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze. "La Galera: análisis de su influencia en la renovación pedagógica en el País Vasco", In: DÁVILA BALSERA, Paulí; NAYA GARMENDIA, Luis M. *Espacios y patrimonio histórico-educativo*. Donostia: Erein, 2016; 987-998 or.

PEREZ URRAZA, Karmele; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña. "Aurtxo I eta Aurtxo II silabategiak". In: ETXEBARRIA LEGARRETA, Aintzane et al. *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*. Bilbo: UPV/EHU, 2018; 13-35 or.

PEREZ URRAZA, Karmele. "Ikastola euskal irakaskuntzaren ardatzean". In: HERMES, *pentsamendu eta historia aldizkaria*. *Revista de pensamiento e historia*, 62. zkia., Bilbo: Sabino Arana Fundazioa, 2019; 42-58 or.

PEREZ URRAZA, Karmele; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; BILBAO BILBAO, Begoña. *Adelina Méndez de la Torre, maestra en Bilbao de 1897 a 1937*. Bilbo: Bilbogileak, Fundación Bilbao 700, 2019; 244 or.

REKALDE RODRIGUEZ, Itziar. "Emakume Abertzale Batza. Bere ibilbidea aztergai". In: BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; CHUECA INTXUSTA Josu. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. UPV/EHU-BFA/DFB, 2012; 21-45 or.

ROMERO, Nancy E. *Entre maestros y editores: Sentidos atribuidos a las prácticas escolares asociadas al uso de los textos en escuelas primarias de la provincia y la ciudad de Buenos Aires*. Buenos Aires: Universidad de San Andrés, 2011; 127 or.

TELLERIA, Xabier. *Ixaka Lopez Mendizabal*. Gasteiz: EJGV: Bidegileak, 1999; 25 or.

URKIZA IBAIBARRIAGA, Ana. "Emakumeak adimenean". In: BILBAO BILBAO, Begoña; EZKURDIA ARTEAGA, Gurutze; PEREZ URRAZA, Karmele; CHUECA INTXUSTA Josu. *Emakumeak, hitza eta bizitza*. UPV/EHU-BFA/DFB, 2012; 79-103 or.